

IMQ Urdina

Osasun-Asistentziako Asegurua

Baldintza Orokorrak
2021ko EREDUA



IMQ Urdina

Osasun-Asistentziako Asegurua

Baldintza Orokorrak

2021ko EREDUA



Osasun Plangintzako Zuzendaritza Nagusian erregistratua 230 zenbakiarekin. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Entitate Aseguratzailleen Erregistro Berezian inskribatua 1960ko apirilaren 28ko MA betez (1980ko maiatzaren 21eko BOE). Legeak ezartzen dituen gordailuak eraturik. Erreserba osoa Espainian.

Aurkibidea

IMQ Urdina Osasun-Asistentziako Asegurua

1. artikulua	Atariko Klausula	5
2. artikulua	Definizioak	5
3. artikulua	Kontratuaren Oinarriak	9
4. artikulua	Aseguruaren Xedea	9
5. artikulua	Estalduraren deskribapena	10
6. artikulua	Aztertutako Arriskuak	17
7. artikulua	Gabezia Aldiak	20
8. artikulua	Zerbitzuak Emateko era	20
9. artikulua	Primaren Ordainketa	22
10. artikulua	Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea	24
11. artikulua	Aseguruaren Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak	24
12. artikulua	Aseguratzailaren bestelako betebeharrak	27
13. artikulua	Aseguruaren Iraupena	28
14. artikulua	Eskubideak galtzea. Kontratuaren Desegitea eta eztaba daezintasuna	28
15. artikulua	Datuak Babestea	30
16. artikulua	Erreklamazio-eskariak eta kontrola. Bezeroarentzako Arreta Saila	32
17. artikulua	Eskumena	34
18. artikulua	Preskribapena	34
19. artikulua	Jakinarazpenak	34
20. artikulua	Urruneko kontratazioa	35

Osasun-Asistentziako Asegurua

Zerbitzu osoak
Ordainketa ekintza medikoko
Medikua aukeratzeko askatasuna

Aseguratuak parte hartzen du zerbitzuen kostuan.

1. artikulua

Atariko Klausula

1. IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSek egiten duen jarduera aseguratzailea Espainiako Estatuaren kontrolpean dago. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatutako entitatearen kontrola egiteaz.
2. Kontratu hau honako hauek arautzen dute: Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean xedatutakoak (urriaren 17ko BOE); uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzailen Antolamendu, Ikuskatze eta Kaudimenari buruzkoak; eta azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzailen ikuskatze eta kaudimenari buruzkoak; eta kontratu honi batzen zaizkion Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezietan hitzartzen denak; eta ez dute baliorik izango aseguruaren hartzailearen eta aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak aipatutako aseguratuak beren beregi idatziz onartzen ez badituzte. Aipatutako onarpen horren premiarik ez dute izango legezko aginduen edo aginduzko araudien transkripzioek edo erreferentziak.
3. Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 3. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, letra beltzez nabarmentzen dira Baldintza Orokor hauetan agertzen diren eta Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak. Halaber, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, modu argi eta ulergarrian deskribatzen dira kontratuan emandako bermeak eta estaldurak, hala nola horietako bakoitzari dagokionean, horiei eragiten dieten kanporatzeak eta mugak, tipografikoki bereiztuta.

2. artikulua

Definizioak

Kontratu honen ondorioetarako, definizio hauek ematen dira:

Istripua

Kontratu indarrean dagoen bitartean, Aseguratuen asmotik kanpoko gertaera bortitz, bat-bateko eta kanpoko batek eragindako gorputzeko lesioa.

Urte naturala

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldia.

Aseguratua

Aseguruaz ezartzen zaion/zaien eta, Hartzailearen faltan, Kontratutik eratorritako betebeharrak beregan hartzen dituen/dituzten pertsona fisiko edo fisikoak.

Aseguratzailea

Kontratuaren bidez itunduriko arriskua bere gain hartzen duen pertsona juridikoa. Poliza honetan Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros, aurrerantzean Aseguratzailea.

Zerbitzuen katalogoa edo Koadro Medikoa

Osasun arloko profesionalen eta establezimenduen zerrenda editatua, bai Aseguratzaileren propioak zein hitzartuak, helbidea, telefonoa eta ordutegia adierazita. Aseguru honen ondorioetarako Aseguratzaileren koadro medikotzat hartzen dira, bai zuzenean lan egiten duen tokian bai beste aseguru etxe batzuekin egindako hitzarmenen bidez egiten duenetan. Zerbitzuen Katalogo bakoitzean, probintziako osasun profesionalen eta establezimenduen zerrendaz gain, estatu osoko aseguratuarentzako informazio zerbitzuak eta arretarako telefonoak ere azaltzen dira.

Kopagoa

Bere Polizak bermatzen dituen osasun zerbitzuen ordainketan Aseguratuak berak daukan partaidetzaren zenbatekoa (ekonomikoa). Aseguratu bakoitzari banaka ezartzen zaizkio zerbitzu horien arabilaren arabera eta Baldintza Partikularretan zehazten dira. Kopagoen zenbatekoa urtero eguneratu daiteke Baldintza Orokorren 10. artikuluan xedatzen denaren arabera: "Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea". Kopago orokorrak eta bereziak egon daitezke, osasun ekintza bakoitzari lotutako zenbatekoaren arabera.

Baldintza Partikularrak

Aseguratzan den arriskuaren alderdiak zehazten eta xeheki azaltzen dituen dokumentua, Poliza osatzen duena.

Osasun Galdetegia

Hartzaileak eta/edo Aseguratuak Poliza egin aurretik egin eta sinatutako aitortpena eta Aseguratzailerekin Aseguratuaren xedea den arriskua baloratzeko baliatuko duena.

Primaren Sortzapena

Prima eratzen duen kopuruaren osotasunak Hartzailea Aseguratzaileren zordun bihurtzen duen unea da. Lehenengo Prima Asegurua kontratatzen den unean sortzen da. Bigarren Prima eta Hurrengoak, Aseguratuaren Kontratua zati-tuki edo berariaz luzatzen den urtealdi bakoitzaren hasieran sortzen dira.

Gaixotasuna

Istripu batek eragindakoak ez diren eta Aseguratuaren osasunean ematen diren aldaketa mota guztiak, medikuak diagnostikatuak, osasun asistentzia behar dutenak eta lehen agerpenak Kontratua indarrean dagoela izan dituztenak.

Sortzetiko gaixotasuna, lesioa, akatsa edo malformazioa

Jaiotzeko unean dagoen hori da, bai herentziako faktoreen ondorioz bai haurdunaldian zehar jaiotza unera arte hartutako eritasunen ondorioz. Sortzetiko eritasuna jaiotze unean bertan agertu eta aitortu daiteke edo beranduago, Aseguratuaren bizitzako edozein unetan, aurkitu daiteke.

Aurretik dagoen gaixotasuna

Aseguratuaren kontratazio data baino lehen edo Polizan altan eman aurretik Aseguratuak jasaten duen hori da.

Erizaina

Erizaintza jardueran aritzeko legez gaitutako eta prestatutako profesionala.

Primaren Ordainketaren Zatikapena

Aseguratzaileren eta Hartzailearen artean, azken honen onuran, Baldintza Partikularretan jar daitekeen ordainketa erraztasuna da; horri esker, prima osoaren edo zati baten ordainketa sortzapen unea baino beranduago ordaindu daiteke. Primaren ordainketa zatitzeko ahalbideak ez du, inola ere, Prima zatigarria denik esan nahi.

Frankizia

Aseguratuak Aseguratzailari puntualki ordaindu behar dion zenbatekoa bere Polizaren barnean Aseguratutakoek erabilitako osasun-zerbitzuengatik. Zenbateko hori ezberdina da osasun zerbitzu eta/edo espezialitate mediko mota ezberdinen arabera eta bere kopurua, Baldintza Partikularretan zehazturik datorrena, urtero eguneratu ahal izango da Baldintza Orokorretako 10. artikuluan “Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea”.

Ospitalea

Gaixotasunak edo gorputz lesioak tratatzeko baimen legala duten eta, modu anbulatorioan zein ingresu bidez, diagnostikoak eta ebakuntza kirurgikoak egiteko baliabideak dituzten establezimendu publiko edo pribatu guztiak. Establezimendu horietan mediku bat egongo da arreta emateko eguneko 24 orduetan, eta gaixoen edo lesionatuen ingresua bakarrik onartuko da.

Polizaren ondorioetarako, ez dira ospitaleztat hartzen hotelak, atsedenekuak edo eriondo-etxeak, bainuetxeak, babes-etxeak, bereziki gaixotasun kronikoak tratatzen dituzten instalazioak, alkoholismoa edo beste drogamenpekotasun mota batzuk tratatzen eta/edo desohitzen dituztenak, eta antzeko instituzioak.

Ospitaleratzea

- Ospitaleratze Orokorra. Pertsona bat ospitale batean gaixo bezala erregistratua agertzea eta gaua pasatzea edo bertan otordu nagusietariko bat egitea.
- Eguneko Ospitalea. Pertsona bat gaixo bezala erregistratua agertzea berariaz horrela izendatutako ospitaleko unitateetan, medikoak zein kirurgikoak edo psikiatrikoak, bertan tratamendu jakin bat jasotzeko edo anesthesiaren eraginpean egon izanagatik, gaua bertan pasatu gabe, otordu nagusietariko bat unitatean eginez edo egin gabe.

Ebakuntza Kirurgikoa

Helburu diagnostikoak edo terapeutikoak dituen edozein ebakuntza, ebakiz zein barneko esku-hartzerako beste modu batez, zirujau batek baimendutako zentro batean egindakoa (ospitalea edo ospitaletik kanpo), eta normalean ebakuntza gelaren erabilera eskatzen duena.

Material ortopedikoa

Gorputzeko itxuragabetasunak prebenitu edo zuzentzeko erabilitako pieza anatomikoak edo edozein izaeratako elementuak.

Osteosintesi materiala

Protesi mota, apurtutako hezuraren muturrak lotzeko edo artikulazio-muturrak soldatzeko pieza edo elementu metalikoez zein beste edozein motatako ez osatua.

Medikua

Medikuntzan aritzeko legez gaiturik dagoen Medikuntzan Lizentziatua.

Mediku Espezialista edo Espezialista

Legez aitortutako espezialitate medikoren batean bere profesioan jarduteko beharrezko titulazioa duen Medikua.

Gabezia Aldia

Polizaren barnean baitan sarturik dauden estalduretariko batzuk eragingarriak ez diren denboraldia. Denboraldi hau hilabetetan zenbatzen da Poliza indarrean sartzen denetik eta bertan Aseguratutako pertsona bakoitzarentzat.

Eztabaidagarritasun Aldia

Poliza indarrean sartu denetik bertan Aseguratutako pertsona bakoitzarentzat zenbatutako denbora tartea zeinetan Aseguratzailerak prestazioen estaldurari uko egin diezaiokeen edo Kontratua ihardets dezakeen, Aseguratuak gaixotasunak aurretik izan eta Osasunari buruzko Galdetegian aitortu ez dituela argudiatuta. Hartzaileak eta/edo Aseguratuak gainuz jokatu baldin badu, Aseguratzailerak ahalmen hori izango du epealdi hori jarota ere.

Poliza

Aseguruaren Kontratua arautzen duten klausulak eta itunak dituen dokumentua. Polizaren parte osagarriak eta banaezinak dira honako hauek: Baldintza Orokorrak, arriskua bereizten duten Partikularrak, Bereziak, baldin baleude, eta berau osatzeko edo aldatzeko jartzen zaizkion Osagarriak edo Gehigarriak.

Prestazioa

Kontratua indarrean dagoen bitartean estalduraren xede den ezbeharrak gertatzen eratorritako osasun asistentziaren kostua bereganatzean datza.

Prima

Aseguruaren prezioa. Prima bakarra, urtekoa eta alde zuzenetik ordaintzekoa da. Hala ere, zatika ordaintzea itundu ahal izango da, baina honek ez du, kasu batean ere, duen izaera banaezina eta urtekoa zatitu egiten denik esan nahi.

Lehenengo Prima da Asegurua kontratatzen deneko data eta hasieran aurreikusitako indarreko epearen amaieraren artean dagoen aseguru aldiari dagokiona, kalterik egin gabe kontratu egile biei arteko adostasunaz egindako luzapenei, isilpekoak zein berariazkoak. Arau orokor bezala, Aseguruaren kontratazio datatik urte bereko abenduaren 31ra arte Aseguratzailerak ematen dion arrisku estalduragatik Polizaren Hartzaileak egiten duen kontraprestazioa izango da Lehenengo Prima.

Bigarren Prima eta Hurrengoak, isilpeko edo berariazko luzapenen ondorioz Aseguruaren Kontratua indarrean jarraitzen duen aseguratutako bigarren urtealdiari eta hurrengo urtealdiei dagozkienak dira.

Prima urtero eguneratua izan daiteke Baldintza Orokorretako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera: "Polizaren Baldintza Ekonomikoen Urteko Eguneratzea".

Protesia

Lesionatutako organo, aparatu edo sistema baten gabezia (osoa edo zati batena), hala nola horren funtzio fisiologikoa denboraldi batean edo iraunkorki ordeztzeko erabiltzen diren edozein izaeratako elementu guztiak.

Ezbeharrak

Polizak osorik edo zati batean estaltzen dituen osasun zerbitzuak erabiltzea beharrezko egiten duten ondorioak dituen gertaera.

Aseguruaren Txartela

Aseguruaren jabetzako dokumentua, Polizan sartuta dagoen Aseguratu bakoitzari luzatu eta ematen zaiona. Txartela pertsonala da, ezin da eskuz aldatu eta Polizak estaltzen dituen zerbitzuak jasotzeko erabili behar da.

Aseguruaren Hartzailea

Aseguratuarekin batera Kontratu hau sinatu eta bertan ezartzen diren betebeharrak, duten izaeratik Aseguratuak berak bete behar dituenak izan ezik, bere gain hartzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Larrialdia

Bere osasunean kalte konponezina eman ez dadin bat-bateko izaera duen asistentzia medikoa beharrezko egiten duen Aseguruaren egoera.

Hil ala biziko larrialdia

Pertsona baten bizitza hurreko arriskuan jartzen duen eta berehalako jarduera medikoa behar duen egoera oro.

3. artikulua

Kontratuaren Oinarriak

Kontratu hau Aseguruaren Hartzaileak eta/edo Aseguratuak Aseguruaren Eskarian eta bere osasun egoerari buruzko Osasun Galdetegian egindako adierazpenetan oinarritzen da. Aipatutako adierazpenak Aseguratuarekin Kontratu honen arriskua onartzeko oinarria osatzen dute eta osotasun bakar bat eratzen dute.

Ondorioz, kontratatze baldintzak honakoak dira: Aseguratuak bere kontura onartzea alde aurreko azterketa medikoa eta/edo Aseguratuarekin ezarritako Osasun Galdetegi-Aitorpena betetzea. Aseguratuarekin berarentzat gordetzen du kontratatze askatasuna.

Asegurua egiteko adin muga hirurogeita hamar (70) urtekoa da.

Aseguratuarekin Hartzaileari Poliza emango dio. Poliza hori osatzen dute Baldintza Orokorrek, Partikularrek eta Bereziek, baleude, eta Aseguruaren Txartelak.

4. artikulua

Aseguruaren Xedea

Polizak ezartzen dituen mugen eta baldintzen barruan, eta kasuan kasuan dagozkion Prima, kopago eta frankiziak ordainduta, Aseguratuarekin konpromisoa hartzen du Aseguratuari dagokion asistentzia medikoa, kirurgikoa eta ospitalekoa emateko 5. artikuluan jasota dauden era guztietako lesio eta/edo gaixotasun guztietan, baldin eta sartutako espezialitate, osasun-prestazio eta bestelako zerbitzuen artean badaude. Horrela, zuzenean ordainduko dizkie ordainsariak eta zerbitzuen tarifak asistentzia ematen duten Profesionalei eta Osasun-Zentroei.

Edonola ere, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 103. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aseguratuarekin zuzenean hartzen du bere gain izaera larrialdia duen beharrezko asistentziaren kostua, Polizaren baldintzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Polizak estalitako osasun-asistentzia Aseguratuarekin Koadro Medikoaren bidez baino ez da burutuko, Aseguratuarekin berak hitzartutako Zentroetan.

Poliza honek Poliza bera indarrean sartzen den unean erabiltzen diren teknologia eta metodologia medikoak bermatzen ditu. Aseguruaren estalduran ez dira sartuko tratamendu mediko, kirurgiko eta diagnostikoetarako ekartzen diren teknologia berriak, Aseguratzailerak Baldintza Orokorretan berariaz horrela adierazi eta primaren tarifyan beharrezko egokitzapenak egiten ez diren bitartean.

Osasun asistentziako Aseguru honetan ez da diruzko kalte-ordainik onartuko Polizak estaltzen dituen osasun asistentziaren zerbitzuak ematearen ordez.

5. artikulua

IMQ Urdina Estalduraren deskribapena

Estalita dauden espezialitate, osasun-prestazio eta bestelako zerbitzuak, Polizaren estaldura bera adierazten dutenak, Baldintza Partikularretan adierazitakoak dira, hala nola etorkizunean erantsi eta/edo aldatu ahal direnak kasuan kasuan dagokion prima gehigarria aplikauta, beti ere honako honetan oinarrituta:

Urdina Poliza

Ondoren berariaz aipatzen diren prestazioak hartzen ditu:

I. Lehen Mailako Arreta

Medikuntza Orokorra edo Familiakoa

Kontsultan eta etxekoa.

Pediatría

Kontsultan, 14 urtera arte.

Erizaintza Zerbitzua

Kontsultan eta etxekoa. Azken kasu honetan Aseguratzaileraren Koadroko mediku **batek aldeztu aurretik aginduta.**

II. Espezialitateak

Alergologia

Analisi Klinikoak

Anatomia Patologikoa

Anestesia eta Erreanimazioa

Digestio Aparatua

Kardiologia

Kirurgia Kardiobaskularra

Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa

Barne hartzean da kirurgia robotikoa, dagokion frankiziari lotua, baita obesitatearen kirurgia ere, **teknika endoskopikoak salbu,** gainbegiratutako tratamendu kontserbatzaileak porrot

egin duen pazienteen kasuan, 40 kg/m² edo gehiagoko gorputz-masaren indizea dutenak, edo 35 edo gehiagokoa dutenak komorbilitate handiagoekin lotura baldin badu. Azken kirurgia mota hori ere dagokion frankiziari lotua izango da, Aseguratzailerak berariaz izendatutako zentroetan (2).

Aurpegi-masailtako Kirurgia

Baztertu egiten dira hezur txertaketak eta txertaketa osteointegratuak, protesiak eta tratamendu periodontalak, preinplantologikoak zein protesikoak, baita helburu horiekin eskatutako proba diagnostikoak eta gainerako teknikak ere.

Kirurgia Pediatrikoa

Kirurgia Plastiko eta Konpontzailea

Kanpoan geratzen da helburu estetiko hutsa duena. Mastektomia baten ondoren bularra berregiteko erabilitako teknika mikrokirurgikoa sartzen da, frankiziari lotuta (2).

Toraxeko Kirurgia

Dermatologia eta Benereologia

Irudi bidezko diagnostikoa

Ohiko teknikak baino ez ditu estaltzen, hala nola Erradiologia Orokorra, Ekografiak, Mamografia Konbentzionalak eta Hezur dentsiometria (1). Kontraste baliabideak Aseguratzaileraren kontura izango dira.

Endokrinologia eta Nutrizioa

Ginekologia eta Obstetrizia

Barne hartzen ditu DIUren ezarpena (1), (dispositiboaren kostua barne, dispositibo hormonal frankiziari lotuta egongo delarik), ernalezintasunaren eta antzutasunaren azterketa eta diagnostikoa (1) eta Tronpen Lotura (2). Ginekologiako kirurgia robotikoa barne hartzen du, dagokion frankiziari lotuta (2).

Hematologia eta Hemoterapia

Barne-medikuntza

Medikuntza Nuklearra

Microbiologia eta Parasitologia

Nefrologia

Kanpoan geratzen da Hemodialisia, bai prozesu akutuetan bai kronikoetan.

Pneumologia

Kanpoan geratzen dira loaldiko arnasketa nahasketen tratamendua, CPAP eta BIPAP.

Neurokirurgia

Kanpoan geratzen dira Erradiokirurgia eta Kirurgia Estereotaxikoa, Parkinsoneko Kirurgia eta Epilepsiako Kirurgia.

Neurofisiologia Klinikoa

Kanpoan geratzen da burmuineko Kartografia (Mappinga).

Neurologia

Odontologia

Honakoak baino ez daude estalita: sendabide estomatologikoak eta erauzketak, eta helburu hauetara zuzendutako erradiografiak, hala nola aho garbiketa bat urtean.

Ez dira hartuko sendabide estomatologikotzat ez Kirurgia Periodontala ezta tratamendu periodontala ere: arraspatzeak eta berdintzeak.

Oftalmologia

Korneako transplantea barne hartzen da (4) (transplantatu beharreko kornea seguratuaren kontura izango da). **Kanpoan geratzen dira: Miopiaren, Astigmatismoaren, Hipermetropiaren eta errefrakzioaren bestelako arazozen zuzenketa, hala nola Terapia Fotodinamikoa, edozein metodo edo teknikaren bidez.**

Onkologia

Barne hartzen dira erreserborio ezgarriak (4). **Kanpoan geratzen da erradiokirurgia extereotaxikoa eta tomoterapia.**

Otorrinolaringologia

Psikiatria

Urteko hamabost (15) sesio arteko psikoterapia (3). Kanpoan geratzen dira psikoanalisi, terapia psikoanalitikoa eta test psikologikoak. Halaber, hipnosia, narkolepsia eta sofrologia ere kanpoan geratzen dira.

Erreumatologia

Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoa

Urologia

Barne hartzen du Basektomia (2).

Barne hartzen du Urologiako Kirurgia errobotikoa eta Fotobaporizazioa laser berdearekin, betiere Polizari dagozkion frankiziei lotuta (2).

III. Ospitalizazioak

Ospitalizazio Medikoa (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estaldurak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena **gehienez ere berrogeita hamar (50) egunekoa izango da urte naturaleko (2).**

Ospitalizazio Pediatrikoa (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estaldurak hartzen duen ospitalizazioaren **iraupena gehienez ere berrogeita hamar (50) egunekoa izango da urte naturaleko (2).** Halaber, neonatologia unitateko ospitalizazioa ere barne hartzen du, **gehienez urte naturaleko hogeita hamar (30) eguneko mugarekin (2).**

Obstetrikiako Ospitalizazioa (Erditzea)

Barne hartzen du obstetrikiako espezialistak eta emaginak artatutako erditze arruntetako asistentzia, anestesia epidurala eta guzti (2). **Kanpoan geratzen dira espreski uretako erditzeak, etxeokak eta baliabide alternatiboak erabiltzen dituztenak.**

Kanpoan geratzen dira jaiotzeke dagoen haurraren interbentzio kirurgikoak.

Halaber, Aseguratzaillearen kontura izango da RHaren aurkako Txertoa (2), aseguratuari klinikan dagoela ipiniko zaiona, erditu eta berehala.

Ospitalizazio Psikiatrikoa

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena **urte naturaleko berrogeita hamar (50) egun artekoa** izan daiteke, jarraian zein tartekatuta (2). **Ez dira barne hartzen toxikomanien edo drogamenpekotasunen ondoriozko ospitalizazioak, ez eta nortasunaren nahasmenduek eragindakoak ere. Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ospitalizazio Kirurgikoa

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, ospitalean egoteko premia teknikoak dirauen bitartean artapenaren ardura duen Medikuek zehaztuko du (2).

Ospitalizazioa Unitate Koronarioan (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, **gehienez ere berrogeita hamar (50) egunekoa izango da urte naturaleko (2). Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ospitalizazioa Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ebakuntza kirurgikorik gabe)

Estalduak hartzen duen ospitalizazioaren iraupena, **gehienez ere berrogeita hamar (50) egunekoa izango da urte naturaleko (2). Ospitalizazioaren izaera dela eta, ez da lagunarentzako oherik sartzen.**

Ospitalizazioa, kasu guztietan, Hitzartutako Zentroetan izango da, banakako gelan, eta mantenua, sendatzeak eta materiala, ebakuntza gela izateko eskubideak, anestesia eta sendagaiak barne hartzen ditu. Lagunarentzako ohea era sartzen da (2), **beren beregi baztertutako kasuetan izan ezik.**

Ospitalizazio medikoen kasuetan (ebakuntza kirurgikorik gabeak), **ezarritako mugak gaindituta, Aseguratzailleak Polizak barne hartzen dituen ordainsari medikoak, analisiak eta probak baino ez ditu hartuko bere gain.**

Prozesu berritzaile hartuko da alta egunetik kontaktzen hasita ondorengo hiru egunak igarota berriz ere ingresua eskatzen duen hori.

Etxeko Ospitalizazioa

Ingresu baten ondoren, betiere ospitalizazio Klinikoen ordezkioa edota jarraipena denean eta gaixoaren ardura duen profesionalak aginduta denean. **Prozesu medikoa baldin bada, Ospitalizazio Medikoaren osotasunaren gehieneko muga aplikatuko da (2).**

IV. Beste Metodo Terapeutiko batzuk

Elektroterapia (1)

Uhin Laburra, Izpi Infragorriak, Izpi Ultramoreak.

Fisioterapia eta Errehabilitazioa (3)

Barne hartzen du **bakar-bakarrik** izaera **anbulatorioa** duenean eta **jatorria lokomozio-aparatuan duten afekzioetan baino ez, baldin eta ez bada prozesu kronikoa zein**

endekapenezkoa, eta betiere Aseguratzailerak adierazitako mediku batek **aginduta aldeztu aurretik**. **Aseguratzailerak adierazitako zentroetan** emango da beti.

Barne hartzen du mastektomia osteko drainatze linfatikoa, jatorri neoplasikokoa, **ebakuntzaren ondorengo hemezortzi (18) hilabeteen barruan**.

Halaber, barne hartzen ditu pelbis-zoruaren errehabilitazioa. Erditze ondorengo pelbis-zoruaren errehabilitazioa eta bihotzeko errehabilitazioa erregimen ambulatorioan, dagokien frankiziari lotuta egongo dira eta Aseguratzailerak espreski adierazitako zentroetan emango dira.

Kanpoan geratzen dira mantentzeko terapiak eta terapia okupazionalak, hala nola gaixotasun kronikoen, jaiotzetikoen, neurologikoen eta endekapenezkoen errehabilitazioa.

Hemodinamika Baskularra (2)

Litotrizia (3)

Giltzurrunetakoa eta muskulu-eskeletikoa bakarrik. Azken hori dagokion frankiziari lotuta egongo da.

Logofoniatria (3)

Barne hartzen ditu jatorri organikoko afekzioen batek eragindako nahasmenduen tratamenduak. Estalduraren xede diren tratamenduak urteko **laurogeita hamar (90) saiko muga daukate**. **Jatorria edozein dela ere, kanpoan geratzen da lengoaiaren nahasmenduen prebentzioa, azterketa eta zuzenketa**. Halaber, kanpoan geratzen da, ahotsaren eta horren mekanismoaren erasanaren gaineko terapia, sortzetikoak, psikikoak, neurologikoak eta endekapenezkoak diren patologietan, lehen mailako zein bigarren mailako jatorria izan.

Nutrizio Parenteral

Ospitalean.

Onkologia

- Kimioterapia, ingesatuta zein eguneko ospitalizazioan. Aseguratzailerak merkatu nazionallean eta produktuaren fitxa teknikoan agertzen diren aginduetan Osasun Ministerioak baimenduak diren eta bide parenteralez ematen diren medikamendu zitostatikoen gastuak (2) **baino ez ditu hartuko**. **6 artikulua 23 atalarekin bat, berariaz utzi dira estalduratik kanpo antigorputz monoklonalak**.
- Erradioterapia, ambulatorioa eta ospitalekoa (2).

Kanpoan geratzen dira garezur barneko zein kanpoko erradiokirurgia estereotaxikoa, baita tomoterapia eta intentsitate-modulazioko tratamenduak ere.

Oxigenoterapia, Bentiloterapia eta Aerosolterapia (1)

Ambulatorioa eta etxekoa. Medikazioa Aseguratuaren kontura izango da.

Erradiologia Baskular Interbentzionista (2)

Psikoterapia (3)

Urtean gehienez ere hamabost (15) saio. Aseguratzaileraren Koadroko psikiatra batek aurretik aginduta. **Psikoanalisi, terapia psikoanalitikoak eta test psikologikoak kanpoan geratzen dira**. Halaber, hipnosia, narkolepsia eta sofrologia ere kanpoan geratzen dira.

Transfusioak

Odola eta plasma, ebakuntza-gela barruan eta kanpoan (2).

Minaren Unitatea (2)

Barne hartzen ditu gordailu ezargarriak (4).

Kanpoan geratzen dira erradiofrekuentzia eta/edo sistema ezargarriak daramatzaten tratamenduak, hala nola mota guztietako materialak eta sorgailuak.

V. Beste Metodo Diagnostiko batzuk

Beste baliabide diagnostiko batzuk

Elektrokardiogramak, Entzefalogramak, Holter (1), Esfortzu-proba (1), Eko-intrakabitariora, Ekokardiogramak, Doppler eta Kardiotokografia haurdunaldian eta erditze unean (2).

Goi mailako teknologiako baliabide diagnostikoak

- Arteriografia Digitala (DIVAS) (1).
- Kapsula endoskopikoa (1).
- Koronariografia (2).
- Estres Eko (1).
- Doppler Eko (1).
- Ekokardiografia transesofagikoa (E.T.E.) (1).
- Endoskopia (1).
- Gammagrafia, **Dat-Scam izan ezik** (1).
- Mamotomia (MIBB) (2).
- Mikrobiopsia (1).
- PET/OTA onkologikoa (3) Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiar Agentziak baimendutako egokiespenetarako 18-fludesoxiglukosa (18 FDG) erradiofarmakoarekin, eta egokiespen klinikoetarako 18F-Colina erradiofarmakoarekin eta Aseguratzailerak bereziki izendatutako zentroetan eta dagokion frankiziaren mende dago.
- Gaueko Polisomnografia (2).
- Haurdunaldian malformazioak atzemateko probak (2): **amniozentesia edo biopsia koriala bakarrik**. Amaren odolearen jaiotze aurretiko diagnostiko genetikoa, frankiziari lotuta (2).
- Erresonantzia Magnetikoa (1). Kontraste baliabidea Aseguratzaileraren kontura izango da.
- Eskaner eta TAC 64 (1). Kontraste baliabidea Aseguratzaileraren kontura izango da.

VI. Beste Zerbitzu Batzuk

Anbulantzia

Aseguratua bizi den lurralde barruan, egoera fisikoak hala eskatzen duen pazienteentzat, ohiko bizilekutik lurralde bereko Hitzartutako Zentroetara eraman beharra badago, ospitalean ingresatzeko zein larrialdietako asistentzia emateko. **Edonola ere, Aseguratzailerak hitzartutako Medikuek edo Larrialdi Zentroak idatziz egindako eskaera edo agindua beharrezkoa izango da. Etxera buelta Aseguratuaren kontura izango da**, balioezintasun egoera berdinak irauten duen kasuetan izan ezik.

Garraioa, kasu guztietan, lurrez egingo da eta osasun ibilgailuan medikuaren ustetan erabat beharrezkoa denean bakarrik egingo da. **Zerbitzu honen estalduran, kasu batean ere ez da sartzen ez Fakultatibo baten ohiko kontsultara joatea, ezta Dialisi, Errehabilitazio, Erradioterapia, Elektroterapia eta abarreko tratamenduak hartzera joatea ere.**

Habia (2)

Jaioberriarentzat, erditzearen ondoriozko ospitalizaio obstetrikokoak dirauen bitartean.

Podologia

Urtean gehienez ere 2 saio ambulatorio.

Erditzeko prestakuntza (2)

Protesi finkoak (4)

Aseguratzailerak adierazitako enpresek hornituak izango dira beti, eta Aseguratzaileraren kontura izango dira ondoren zehazten diren barne protesi finkoak bakarrik, **Polizaren Baldintza Partikularren Eranskinean ezarritako kapital aseguruaren mugaraino**:

- Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoa: Barneko protesi traumatologikoak, barneko osteosintesi materiala eta ehun-banku nazionaletatik ateratako material osteoligamentoso biologikoa barne.
- Aparatu Kardiobaskularra: Balbula Kardiakoak, stent, bypass baskularra (**beren beregi kanpoan geratzen dira aortan erabilitakoak eta garezur barruko atal baskularrak, hala nola endoprotesiak**), eta aldi baterako edo behin betiko taupagailua, MRI **izan ezik**, baita edozein desfribiladore mota ere.
- Digestio Aparatua: Endoprotesia.
- Ginekologia: Jatorri neoplasikoko mastektomia ondorengo bular-protesia.
- Neurokirurgia: Deribazio-balbulak.
- Oftalmologia: begi barruko leiar monofokalak zein bifokolak begi-lausoen ebakuntzaren ostean, **leiar Torikoak izan ezik**.
- ORL: Tinpanoko protesia.
- Kimioterapia edo Minaren Tratamendua, gordailuak.
- Bestelako material kirurgikoak: sare abdominalak.

Beste edozein motako protesi, pieza anatomiko edo ortopedikoren kostua Aseguratuaren kontura izango da.

Bigarren Iritzi Medikoa

Mundu mailan entzute handiko espezialisten iritzia ezagutzeko aukera ematen du, **gaixotasun larria denean** diagnostikoa eta tratamendua egiaztatzeko. Aseguratuak Bigarren Iritzi Medikoa txostena jasoko du etxean. Zerbitzu hau Aseguratzailerak ezarritako baldintzekin bat etorri emango da.

Larrialdietako Zerbitzu Iraunkorra

Aseguratzailerak Koadro Medikoa adierazitako Zentroetan. Asistentzia etxean emango da gaixoaren egoerak hala eskatzen duenean, eta orotariko medikuak eta/edo erizaintza zerbitzuak emango da.

Larrialdiak noizean behingo edo aldi baterako lekualdaketetan

Aseguratzaileraren lurralde eremutik kanpo eta lurralde nazionalaren barruan, Aseguratzailerak eta/edo bere Entitate Laguntzaileek hitzartutako Zentroetan, Aseguratzaileraren Koadro Medikoa biltzen denaren arabera.

Larrialdiak atzerriko bidaietan

Horretarako Aseguratuak **estaldura** baldintzak zehazten dituen **ziurtagiria** eskuratu beharko du. Aseguratuzaileak Baldintza Partikularretan Aseguratu bakoitzeko urteko gehienezko zenbatekoa ezartzeko aukera izango du, eta urtero eguneratu ahal izango da, "Polizaren Baldintza Ekonomikoak urteko Eguneratzea" delakoaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

VII. Gabezia Aldi Orokorrak

(1) = 6 hilabete (2) = 8 hilabete (3) = 12 hilabete (4) = 18 hilabete

6. artikulua

Baztertutako Arriskuak

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira:

- 1) Lan istripuetatik eta gaixotasun profesioaletatik eratorritako osasun asistentzia, baldin eta Aseguratu estaltzen duen aseguru berezi bat edo erantzule zibila den hirugarren bat badago.
- 2) Osasunaren Sistema Nazionalean sartzen diren Zentroetan emandako osasun asistentziatik eratorritako gastuak, Zentro jakin batzuetan berariaz hitzartutako asistentziatik eratorritakoak izan ezik.
- 3) Hurrengo ondoriorik gertatzen direnak: guda zibilak, nazioartekoak edo kolonialak, inbasioak, matxinadak, erreboltak, mutinak, altxamenduak, errepresioak, terrorismoko edo maniobra militarren ekintzak (bake garaian ere); erradiazioarekin edo erraeakzio nuklearrarekin edo kutsadura erradioaktiboarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa dutenak, hala nola lurrikara, uholde, sumendi erupzio eta gainontzeko fenomeno sismiko edo meteorologikoetatik eratorritakoak eta ofizialki aitortutako izurriteek sortutakoak.
- 4) Aldez aurretik eta/edo jaiotzetik dauden mota guztietako gaixotasun, akats edo deformazioetatik eratorritako osasun asistentzia; Aseguratu bakoitza Polizan sartu zen dataren aurretik gertatutako istripu edo gaixotasunen ondorio den osasun asistentzia, hala nola horietatik erator daitezkeenak ere.
 - Aseguruaren Hartzailak, bere izenean zein Aseguratuaren izenean, dagokion aurretiko azterketa medikotik at, Aseguru Eskuera sinatzeko unean, Aseguratu bakoitzak edozein motatako lesio edo gaixotasunik izan duen adierazi behar du, batez ere izaera errepikagarria dutenak eta sortzetikoak direnak edo azterketak, proba diagnostikoak eta edozein motatako tratamenduak behar edo behar izan dituztenak; baita harpidetzaren unean jasaten ari diren patologiaren baten hasieratzat har daitezkeen sintomak edo seinaleak ere.
 - Aseguratuzailearen esku egongo da eskatzailea/eskatzaileak onartzea edota ezeztatzea.
 - Baldintza honetako lehenengo paragrafoan zehaztutako baztertutako kanpo geratutako aurretiko eta/edo jaiotzetiko gaixotasun, lesio, akats edo deformazioak baldin eta Hartzailak eta/edo Aseguratuak Osasun Galdetegian aitortu eta Aseguratuzaileak horien estaldura onartu badu Polizaren Baldintza Partikularretan.

- 5) **Toxikomanietatik edo drogamenpekotasunetik eratorritako eta horiei lotutako osasun asistentzia, psikiatrikoa barne, eta nortasunaren nahastetik eta autolesioetatik, mozkorkeriatik edo liskarretatik (norberaren defentsan izan ezik) edo buru-hilketa saiaketatik eratorritakoa.**
- 6) **Aseguratuak bere kabuz eta zuzenean, hau da, aseguratu izaera horretatik at eta Asegurua bera aipatu gabe, eskatutako zerbitzu profesionalak edo osasun establezimenduak, nahiz eta horiek Aseguratzaillearen Koadro Medikoan sartuta egon, eta zerbitzu horiek eskatzea eragin zuen ondoezetik edo eritasunetik eratorritako jarduera guztiei emandako zerbitzuak.**
- 7) **Ospitaleratze erregimenetik kanpoko medikamenduak eta produktu kimiko/farmazeutikoak. Halaber, kanpoan geratzen dira, bai erregimen anbulatorioan bai Ospitalean, era guztietako txertoak (RHaren aurkako txertoa izan ezik), Hemofiliaren tratamendua, toxina botulinikoa eta azido hialuronikoa.**
- 8) **Sexu bietan ernalezintasuna eta antzutasuna konpontzera bideratutako tratamendua (kirurgia barne), "in vitro" ernalketa, intseminazio artifiziala, e.a., eta haurdunaldiaren borondatezko etendura, hala nola aipatutako tratamenduekin zerikusia duten proba diagnostikoak.**
- 9) **Kanpo geratzen da inpotenziaren azterketa, diagnostikoa eta tratamendua (kirurgia barne), hala nola sexu-aldaketaren kirurgia.**
- 10) **Organoen, ehunen, zelulen edota osagaien transplanteak, salbu eta kornearen transplantea, baldin eta Polizaren zerbitzuen deskribapenean sartuta badago. Edonola ere, kasu horretan estalduratik kanpo geratzen dira transplantatu beharreko organoa lortzea eta horrekin lotutako kudeaketa guztiak.**
- 11) **Izaera estetikoa edo kosmetikoa baino ez duten ekintzen diagnostikoa, ebakuntzak, infiltrazioak eta tratamenduak, hala nola beste edozein jarduera. Era berean, kanpo geratzen dira helburu estetikoa duten ile tratamenduak.**
- 12) **Edozein mota eta izaeratako protesiak (osteosintesi materiala barne), kanpoko finkagailuak, material biologiko zein sintetikoak, hala nola pieza anatomikoak eta ortopedikoak, Aseguratuaren kontura izango baitira, salbu eta Polizaren zerbitzuen deskribapenean agertzen badira.**
- 13) **Bidaia eta lekualdaketen ondorioz sortutako gastuak, anbulantziarenak izan ezik, zerbitzuen deskribapenean aipatzen diren terminoetan. Halaber, kanpo geratzen dira Aseguratu Zentrora garraiatzeak eragiten dituen gastuak, eta alderantziz, errehabilitazio, fisioterapia, dialisi, erradioterapia, etab. kasuetan.**
- 14) **Miopia, Astigmatismoa eta Hipermetropiaren hala nola errefrakzioaren beste edozein arazoren zuzenketa kirurgikoa edozein baliabide edo teknikaren bidez.**
- 15) **Edozein kirolaren praktika profesionaletik edo kirol txapelketetan oro har amateur gisa parte hartzetik eratorritako osasun-asistentzia, eta bereziki hurrengo jardueretatik eratorritakoak: aire jarduerak, boxeo, arte martzialak, eskalada, espeleologia, urpekaritza, motor ibilgailuen karrerak, errugbia, hipika, zezenketa eta abelburu hezigabeen entzierroa.**
- 16) **Gizarte-arrazoietatik eratorritako medikuaren eta/edo ospitaleko asistentzia, adibidez: familian egokitasunik eza edo zailtasuna, ondorio edo egoera konponezinak.**

- 17) Ostalaritza zerbitzuak, adibidez: telefonoa, telebista, hautazko edo lagunarentzako janariak eta erizaintza zerbitzu pribatua.
- 18) Gaixotasunaren prebentzioari, tratamenduari edo sendaketari laguntza eraginkorra ematen diotela behar bezala frogatuta ez duten prozedurak, hala nola hautabidezko medikuntzak, adibidez: naturopatia, hidroterapia, magnetoterapia, akupuntura, kiropraktika, digitopuntura, homeopatia, mesoterapia, presoterapia, ozonoterapia, etab., Aseguratzaillearen Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan arren.
- 19) Kanpoan geratzen dira berariaz, praktika orokorrekoak ez diren eta Osasunaren Sistema Nazionalan onarturik ez dauden prozedura diagnostiko eta terapeutiko guztiak, nahiz eta Aseguratzaillearen Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan, Baldintza Orokorretan beren beregi sartuta egon eta dagozkien egokitzapenak Primetan eginda ez dauden bitartean.
- 20) Bainuetxeetan eta antzeko Zentroetan egoteagatik sortutako gastuak, nahiz eta Aseguratzaillearen Koadro Medikoko Fakultatiboek agindutakoak izan.
- 21) Osatzeko helburua ez duten azterketa medikoak (miaketak), hala nola gida eta ehiza baimenak lortzekoak, aitatasun probak, etab.
- 22) Edozein diagnostiko-metodo: genetikoa, molekurrara, edo beste era batekoa; baita Asegurudunak edo bere ondorengoek alterazio genetikoei loturiko gaixotasunak pairatzeko alde aurretiko joera edo diagnostikoa ezagutzeko mapa genetikoa ere, Polizako zerbitzuen deskribapenean espresuki zehazten den kasuetan izan ezik.
- 23) Terapia genikoa, molekularra eta immunoterapia, hala nola zelula progenitoreekin egindako tratamendua.
- 24) Jaioberriari asistentzia medikoa, jaioberria Aseguratzaillearen arauen arabera aseguratutako dagoen kasuetan izan ezik.
- 25) Parkinsonen eta Epilepsiaren gaixotasunen tratamendurako edozein teknika terapeutiko.
- 26) Diagnostiko tekniketarik, tratamenduetatik eta/edo baliabideetatik eratorritako gastuak, Polizaren estalduran sartuta ez dagoen prestaziotik eratorriak edo horren ondorio badira.
- 27) Psikoanalisi, hipnosia, sofrologia, narkolepsia anbulatorioa eta test psikologikoak.
- 28) Odontologian asistentzia, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 29) Laserra darabilten teknika kirurgiko eta/edo terapeutiko guztiak, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 30) Fisioterapia eta errehabilitazio tratamenduak errekonstruktio funtzional osoa edo gehiago posiblea lortu denean, edo mantentze okupazionalerako terapia bihurtzen denean.
- 31) Kirurgia robotikoko ekipamenduak erabiltzen dituzten teknika kirurgia guztiak, Polizaren zerbitzuen deskribapenean berariaz sartutakoa izan ezik.
- 32) Erradiokirurgia extereotaxikoa eta tomoterapia.

33) Uretako erditzeak, etxeakoak eta baliabide alternatiboak erabiltzen dituztenak, hala nola jaiotzeke dagoen haurren interbentzio kirurgikoak.

34) Plaketetan edota hazkunde faktoreetan aberatsa den plasma.

35) Obesitatearen kirurgiaren ondoriozko ebakuntzak eta teknika endoskopiko bidezko obesitatearen tratamenduak.

7. artikulua Gabezia Aldiak

Polizari jarraiki Aseguratzaileak bere gain hartzen dituen prestazio guztiak, Kontratua indarrean sartzen den une berean erraztuko dira.

Hala ere, printzipio orokor honetatik kanpo geratzen dira Baldintza Orokorretan eta/edo Partikularretan Gabezia Aldietara loturik agertzen diren asistentzia medikoa, kirurgikoa eta/edo ospitalekoa. Hauek ondoren zehazten diren Gabezia Aldiak beteak izan behar dituzte:

- Erregimen ambulatorioko ebakuntza kirurgikoek **sei (6) hilabeteko** Gabezia Aldia izango dute.
- Ospitalizazioak eta edozein arrazoiengatik egiten den ebakuntza kirurgikoak, bai ingresupean zein eguneko ospitalean, **zortzi (8) hilabeteko** Gabezia Aldia izango du.
- Estalduraren deskribapenean Gabezia Aldiari loturik agertzen diren prestazioak (5. Artikulua) **kasu bakoitzean zehazten den Gabezia Aldia izango dute.**

Aurretik jakin ezin den hil edo biziko larrialdi kasuan, Gabezia Aldiak baliogabetu egingo dira ospitaleratzea eskatzen duten zerbitzueterako, Fakultatiboaren Informean oinarrituz.

Kasu partikularretan, Osasun-Galdetegiaren analisiaren eta/edo alde aurretik egindako Azterketa Medikoaren ondorioz, beste Gabezia Aldi batzuk jarri ahal izango dira eta, kasua denean, Baztertzeak ere bai. Gabezia Aldiak eta/edo Baztertzeak Aseguratu bakoitzari banaka aplikatuko zaizkio.

8. artikulua Zerbitzuak emateko era

- a) Asistentzia burutzeko, une bakoitzean Aseguratzailearen Koadro Medikoa osatzen duten Osasun-Profesionalen eta Zentroen artean Fakultatiboa eta/edo Zentroa aukeratzeko askatasuna izango du Aseguratuak. Horiek zuzenean emango dizkiote beren zerbitzuak, autonomia osoz eta beren erantzukizun profesionalaren pean.

Frankiziari lotutako Polizaren estaldurak Aseguratzaileak berariaz adierazitako Osasun-Profesionalek eta Zentroek bakarrik emango dituzte.

- b) Fakultatiboaren edo Zentroaren aurrean Aseguratuaren identifikazioa, identifikazio pertsonalerako nahikoa den dokumentuaren eta Aseguratuaren txartelaren bidez egingo da, hala nola Aseguratzaileak une bakoitzean ezarrita dituen zerbitzuaren egiaztagiri dokumentuak ere aurkeztuta. Jasotako zerbitzua ziurtatzen duen ordainagiria sinatu ondoren, Aseguratuari kopia bat emango zaio egiaztagiri gisa.

Aseguratuak jasotako zerbitzu bakoitzeko, Baldintza Partikularretan ezartzen den kopago eta frankiziei dagokion zenbatekoa ordainduko du.

Kopagoei dagokienez, Aseguratuak aldian-aldian Aseguru Hartzailari bidaliko dio Polizan sartutako Aseguratuak erabili dituzten zerbitzuen laburpena, horiei dagozkien kopagoen zenbatekoarekin batera. Zenbateko osoaren kobrantza Hartzailariak prima ordaintzeko emandako banketxe-kontura helbideratutako ordainagiriaren bidez egingo da.

Frankiziei dagokienez, Baldintza Partikularretan ezarritako zenbatekoaren ordainketa Aseguratuak zerbitzua baimentzeko eskaria egiten duen unean egingo da, Aseguratuak ezarritako baldintzak erabiltzen.

Aseguratuak kopago eta frankizien zenbatekoa eguneratu ahal izango du, Baldintza Orokorretan ezarritakoaren arabera.

Aseguratuak aldez aurretik emango die Aseguratuak sistemari eta euskarriari behin behineko aldaketen xehetasunaren berri, edonola ere, asistentzia eskuratzeko eragingarri izango direnak, hurrengo atalean ezartzen diren arauen arabera.

- c) Aseguratuak libreki hautatu ahal izango dute Medikuko Orokorra edo Familiakoak, Aseguratuakaren Koadro Medikoa agertzen diren artean. Egindako aukera Aseguratuakari jakinarazi behar zaio eta hautatutako medikuak onartu beharko du.

Asistentziarako ezinbestekoa da Medikuko Orokorra edo Familiakoaren aurretiazko artapena. Medikuko Orokorren edo Familiakoaren asistentziak etxeko bisita barne hartzen du, gaixoaren egoerak Fakultatiboaren kontsultara joatea ezinezko egiten duenean.

Larrialdi kasuetan, hala nola bisita-ordutegiak kanpo (8:00etatik 20:00etara astelehenera ostiralera), estaldurak Etengabeko Larrialdi Zentroetako arreta barne hartzen du edo, kasu denean, Aseguratuak hitzartuta daukan Etxeko Larrialdi Zerbitzuaren eskaera.

Medikuko Orokorren edo Familiakoaren ustez asistentziak edozein Espezialitatearen orientazioa behar duenean, Aseguratuak Aseguratuakaren Koadro Medikoa daudenean artean askatasunez hautatutako Espezialistarengana joango da.

Aseguratuak zuzen jo dezake Ginekologia, Oftalmologia eta Pediatriako espezialitateetara.

Medikuko Espezialistaren asistentzia beharrezko egin zuen gaixotasunak dirauen bitartean, gaixoak hasieran hautatutakoaren zerbitzuak baino ezingo ditu erabili, Medikuko Orokorra edo Familiakoak oniritzitako kausa justifikaturik ez bada. Kasu honetan, Aseguratuakaren Koadro Medikoa agertzen den beste Espezialista batengana bidali ahal izango du.

Helburu diagnostikoak dituzten proba edo araketa osagarrietarako, Medikuko Orokorra edo Familiakoak, zein asistentzia bere kargura duen Espezialistak eskatzea ezinbestekoa da.

- d) Kirurgia Anbulatorioko Ospitaleratze-estaldurarako: dela Medikoa, dela Kirurgikoa, eta diagnostikorako teknika berezietarako beharrezkoa da Aseguratuakaren Medikuko Taldeko Medikoa baten eskaera izatea. Era berean, Aseguratuak aldez aurretik estalduraren berrespena jaso beharko du; Aseguratuakaren bulegoetan edo une bakoitzean ezarritako sistemaren bitartez (esaterako, preskripzio elektronikoen sistemarekin, Medikuko xede horretarako prestatutako baliabide informatikoak erabiliz, Aseguratuakari berrespena emateko dagokion eskaera egin ondoren, Aseguratuak berrespena bitarteko elektronikoen bidez jaso dezake, Aseguratuakaren bulegoetara joan beharrik gabe).

Hil edo biziko egoera larrietan, Medikuen preskripzioarekin nahikoa izango da, baina Asegurudunak (edo Medikiak, aurrez deskribatutako preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez) ahal bezain laster egoeraren berri eman beharko dio Aseguratuari – normalean hirurogeita hamabi (72) orduko epean)- beharrezko erantzuna jasotzeko xedearekin: berrespena edo bazterzea, Polizaren estalduraren arabera.

Erizaintza (Praktikantea) eta Anbulantzia Zerbitzuak eskatzeko Aseguratuak ezarritako Larrialdietarako Arreta eta Zerbitzuaren telefono zentralizatura deitu beharko da.

- e) **Aseguratuak ez ditu bere gain hartuko bereak ez diren Fakultatiboek edo Zentroek emandako asistentziak eragindako gastuak, asistentzia agintzen duen Medikua edozein dela ere. Halaber, ez du bere gain hartuko inolako ordainsari, araketa edo beste edozein zerbitzu motarik ere, hitzartutako Fakultatiboek edo Zentroek egindakoak izan arren, baldin eta gaixoen tratamendurako Aseguratuaren Koadro Medikoko Medikuen ekimenez bakarrik agindutakoak izan ez badira.**

Aseguratuaren Koadro Medikoko Medikuek hitzartu gabeko Fakultatiboengana edo Zentroetara joateko gomendioa egin arren, ez du Aseguratuak lotzen.

Aseguratuaren Koadroko Medikuek, Klinika edo Zentro batek ere ezin badu burutu Polizak estalduriko ebakuntza, miaketa edo tratamendu bat, asistentziaren estaldurak Aseguratuari asistentzia ematen dagoen Fakultatiboaren informea eta Aseguratuak aldeztu aurretik eta berriaz emandako baimena beharko ditu; horrela, egoera horri buruzko informazioa eskatu ahal izango die Koadroko beste Fakultatiboek. Baimena baldin badago, Aseguratuak ez du derrigorrezko loturarik izango Medikuek adierazitako Fakultatibo edo erreferentzia Zentroarekiko, eta aitortutako bermea duen beste aukera bat proposatu ahal izango du.

Halaber, Koadroko Fakultatibo baten adierazpena eta Aseguratuaren aldeztu aurretiko eta berriazko baimena beharko ditu Aseguratuak hitzartutako asistentzia Nazionalaren Sareko Espezialista batekin elkarren arteko kontsulta burutzeko. Baimen hori bera beharko da aseguratuen jardura-esparru geografikotik kanpo dagoen erietxe edo osasun-zentro batean asistentzia jasotzeko.

- f) Estalduraren xedea den asistentziaren beste arau batzuk:
- Aseguru honen ondorioetarako, ezbeharren berri eman dela ulertuko da Aseguratuak zerbitzua emateko eskatzen duenean.
 - *Etzeko zerbitzuen estaldurari dagokionez, bidezko den kasuetan, Polizan agertzen dena baino ez da egingo, Aseguratuaren jardura-esparrutik kanpo gertatzen diren larrialdi zerbitzuen salbuespenarekin. Edozein helbide aldatuta idatziz jakinarazi beharko da eta Aseguratuak dagokion Polizaren Osagarria igotzeko beharra izango du.*

9. artikulua Primaren Ordainketa

Aseguruaren Hartzailea, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 14. artikulua arabera, Prima ordaintzera beharturik dago, Baldintza Partikularretan adierazitako moduan eta datan.

- a) Primaren izaera banaezina eta urtekoa

Prima bakarra da, urtekoa eta aldeztu aurretik ordaintzekoa, lehenengo epealdi aktuarialaren hasieran oso-osorik sortzen da; edo, egongo balira, luzapen bakoitzaren hasieran.

Hala ere, Baldintza Partikularretan eta Hartzaillearen mesedetan, bere ordainketa zatitua itundu ahal izango da, Aseguratzailleak osorik kobratzeko daukan eskubideari kalterik egin gabe. Zatiketa hori ordainketa errazteko da, baina ez dio, inola ere, urteko Primaren batasunari eta banaezintasunari kalterik egiten.

b) Lehenengo Prima

Lehenengo Prima edo berorren zati bat Kontratua sinatzen den unean sortuko da eta, une horretatik aurrera, osorik eskatu ahal izango da Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 15. artikuluekin bat etorritik. Hartzaillearen erruz ordainduko ez balitz, Aseguratzailleak Kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du edo, Polizan oinarrituta, bide betearazlean Prima ordaintzeko eskatzeko. Edonola ere, Prima ezbeharrak gertatu baino lehen ordainduta egon ez balitz, Aseguratzaillea bere betebeharetatik aske geratuko da, kontrako ituna dagoenean izan ezik.

c) Bigarrena eta Ondorengo Primak

Bigarrena edo Ondorengo Primak zein horren frakzioak ordaintzen ez badira, estaldura etenda geratuko da ordaindu gabeko lehenengo ordainagiriaren mugaegunetik hilabetera (1) (edo ordainagiri bakarretik hilabetera, ordainketaren zatiketa itundu ez den kasuan) eta Aseguratzailleak aipatutako mugaegunetik sei (6) hilabeteko epean ordaintzeko eskatzen ez badu, Kontratua iraungita dela ulertuko da. Hala ere, Kontratua iraungita dagoenean Aseguratzailleak uneko Primaren ordainketa eskatzeko eskubidea baino ez du izango.

Kontratua aurreko baldintzen arabera konponduko edo iraungiko ez balitz, estaldurak efektua izango du berriz ere Hartzailleak zor dituen ordainagiriak ordaindu eta hurrengo hogeita lau (24) orduen barruan.

d) Ordainagiriaren librantza eta helbideratzea

Aseguratzaillea legez baimenduriko bere ordezkariak libratutako ordainagiriaren indarrez bakarrik dago behartuta. Aseguru honen Prima ordainagiriak berak igorriko ditu.

Ordainagiriak, gainera, legez aplikatu beharreko gainkargak, tasak eta zergak ere izango ditu.

Baldintza Partikularretan itundu ahal izango da Prima ordainagiriak Bankuetan, Aurrezki Kutxetan edo Kreditu Kooperatibetan irekitako kontuen bidez kobratzea.

Prima ordainagiriaren eta kopagoen helbideratzea ituntzen bada, aipatutakoa zabaltzearen, hurrengo arauak ezartzen dira:

1. Hartzailleak helbideratze agindua agertzen den Bankuari edo Aurrezki Kutxari zuzendutako gutuna edo dokumentua emango dio Aseguratzaileri.
2. Ordainagiri bakoitza bere mugaegunetik ulertuko da ordaindutat, salbu eta kobratzerakoan Hartzailleak emandako kontuan fondo nahikorik ez dagoenean. Kasu honetan, Aseguratzailleak Hartzaileri jakinaraziko dio ordainagiri bere esku daukala eta honek Aseguratzaillearen egoitzan ordaindu beharko du hamar (10) eguneko epean. Epe hori igarota, Primaren ordainagiriak ordaintzen ez diren kasuetarako aurreikusitako ondorioak gertatuko dira.
3. Poliza indarrean dagoen bitartean, Hartzailleak bere ordainagiriak helbideratzeko kontua edo finantza entitatea aldatu dezake, aldaketa horren berri aldeztu aurretik emanaz 1. atalean aurreikusitako moduan.

e) Hartzaillearen erruz iraupen aldia bukatu baino lehen iraungitzen bada kontratua, kontsumitu ez den urteko Primaren zatia Aseguratzaillearena izango da eta berorri zor zaio.

10. artikulua

Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko Eguneratzea

Aseguratzailerak Polizaren urteko berrikuntza bakoitzean honakoak egin ahal izango ditu:

- a) Primen zenbatekoa eguneratu.
- b) Frankizia eta kopagoei dagozkien zenbatekoa eguneratu eta aldatu.
- c) Protesientzat ezarritako estaldura mugaren zenbatekoak eguneratu, kasua denean.

Aipatu eguneratzeak alde batera utzita, eguneratze guztietan urteko prima Aseguratu bakoitzak duen adinaren arabera ezarriko da, berrikuntza bakoitzaren datan Aseguratzailerak indarrean dauzkan prima-tarifak aplikatuta. Aseguruaren Hartzaileak bere adostasuna ematen die horren ondorioz Primen zenbatekoan agertzen diren aldaketei.

Primen, frankizien eta kopagoen eguneratzeak kalkulu tekniko-aktuarialean oinarrituta daude. Kalkulu horiek beharrezkoak dira aseguruaren eskema finantzario-aktuarialean honako hauek duten eragina ezartzeko: osasun-zerbitzuen kostuen handitzea, Polizak estalitako prestazioen maiztasunaren handitzea, kontratua burutu ondoren, agertutako edota erabilitako berrikuntza teknologikoak bermatutako estalduran sartzeari edota antzeko ondorioak dituzten bestelako gertakariak.

Aseguruaren Hartzaileak primen, frankizien edo kopagoen hurrengo urterako eguneratze hauen berri jasotzen duenean aukeratu ahal izango du edo Aseguru Kontratua luzatzea, eta horrek baldintza ekonomiko berriak onartzen dituela suposatuko luke, edo aribidean den urtekoaren mugaegunean amaitutzat ematea. Azken kasu honetan, bide frogagarri baten bidez jakinarazi beharko dio Aseguratzailari zentzu horretan daukan borondatea.

11. artikulua

Aseguruaren Hartzailearen eta/edo Aseguruaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak

1. Aseguruaren Hartzaileak eta, kasua denean, Aseguruak hurrengo betebeharrak dituzte:

- a) Aseguratzailari aitortu, honek emandako Galdetegiaren arabera, berak ezagutzen dituen eta arriskua balioztatzean eragina izan dezaketen egoera guztiak, eta horiek guztiak egiazkoak izan behar dira. Betebehar horretatik salbuetsita geratuko da Aseguratzailerak Galdetegia egiteko eskatzen ez badio edo, nahiz eta eskatu, arriskua balioztatzean eragina izanik ere Galdetegian agertzen ez direnean.

Aseguratzailerak Kontratua desegin dezake Aseguruaren Hartzaileari zuzendutako adierazpenaren bidez hilabeteko (1) epean, Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguruak datuak gorde dituela edo horiek zehatzak ez direla ezagutzen duen unetik zenbatzen hasita.

Aseguratzailari dagozkio, engainua edo erru larria egon ezean, adierazpen hau egiten den unean aribidean dagoen denboraldiko Primak.

Ezbeharrak Aseguratzailerak goiko paragrafoan aipatzen den adierazpena egin baino lehen gertatzen bada, honen prestazioa hitzartutako prima eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko zitzaionaren arteko diferentziari proportzionalki murriztuko zaio.

Aseguruaren Hartzailearen engainu edo erru larria balego, Aseguratzailerak prestazioa bere gain hartzetik aske geratuko da.

- b) Aseguratzailerari jakinarazi, Kontratua indarrean dagoela eta lehenbailehen, alde zuzenetik aurretik aurkeztutako Aseguratuaren Osasun-Galdetegian aitortutako faktoreak eta egoerak aldatu direla, eta arriskua larriagotzen dutela, beren izaeratik Kontratua egiterako unean Aseguratzailerak ezagutu izan balitu ez litzatekeelako kontratua egingo edo baldintza garestiagoetan egingo litzatekeelako. Hartzaileak edo Aseguratuak ez dute derrigorrean jakinarazi behar Hartzailearen edo Aseguratuaren osasun egoerari buruzko baldintzak aldatu direla, inola ere ez baita arriskuaren larriagotzea bezala hartuko.

Aseguratzailerak Kontratua aldatzea proposa dezake, larriagotzearen berri eman zaion egunean zenbatzen hasi eta bi (2) hilabeteko epean. Kasu horretan, Hartzaileak proposamenaren berri izan duen egunean zenbatzen hasi eta hamabost (15) eguneko epea du proposamena onartu edo ezetz esateko. Ezetz esaten badu, edo Hartzailearen erantzunik izan ezean, Aseguratzailerak, aipatutako epea igarotzen denean, Kontratua desegin dezake Hartzaileari horren berri alde zuzenetik aurretik emanda. Hartzaileak hamabost (15) eguneko epe berria izango du erantzuteko eta egun horiek igarota, hurrengo zortzi egunen barruan, behin betiko desegitearen berri emango zaio.

Halaber, Aseguratzailerak Kontratua desegin dezake Aseguratuari idatziz hilabeteko (1) epean jakinarazita, betiere arriskua larriagoa dela jakin duen egunetik aurrera kontatzen hasita. Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak adierazpena egin aurretik ezbeharrak gertatuko balitz, Aseguratzailerak bere betebeharretatik aske geratzen da Hartzaileak edo Aseguratuak asmo txarrez jokatu badu. Bestela, Aseguratzaileraren prestazioa hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko diferentziari proportzionalki dagokionera murriztuko da.

- c) Aseguratzailerari esanbidez eta Zuzenbidean aurreikusitako moduan jakinarazi kontratu honen ondorioz egin beharreko komunikazioetan egin nahi duen edozein aldaketa (helbide-aldaketa, esaterako), aseguru kontratatzean eman zituenez bestelakoak badira.
- d) Aseguratzailerari jakinarazi, ahalik eta arinen, Kontratu hau indarrean dagoen bitartean ematen diren Aseguratuaren altak eta bajak.

Aseguratuaren altak indarrean sartzen dira Hartzaileak edo Aseguratuak egindako jakinarazpen edo adierazpen dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, hala egoera berrira egokituko den Primari dagokionez, nola estalduraren hasierari edo eteteari dagokionez.

Aginduzko Osasun-Galdetegiaren emaitzak ikusita, Aseguratzailerak onarpena ukatu edo bazterketak ezarri ditzake eta, edonola ere, Gabezia Aldi Orokorrak edo Partikularrak aplikatuko dira, egongo balira.

Bizitzako lehenengo hilabetean seme-alaba jaioberrien alta eskatzen bada, eta Osasun Galdetegia alde zuzenetik bete ondoren, Aseguruaren estaldura izango dute jaiotze unetik. Dagokion Prima ere une horretan sortuko da eta bere kobrantza eskatu ahal izango da alta adierazten den unean. Ez zaio amak duena baino Gabezia Aldi luzeagorik aplikatuko.

Jaioberriaren alta adierazitako epea baino beranduago jakinarazten bada, Aseguratuaren alta arautzen duten arau orokorrak aplikatuko dira.

Kontratua indarrean dagoela jakinarazitako Aseguratuaren bajak, edozein arrazoirengatik direla ere, Aseguratzailerari jakinarazten zaion unean izango dute ondorioa eta Aseguru Kontratuaren luzapena gertatzen bada sortzen diren Hurrengo Primak egoera berrira egokitzea ekarriko

dute. Hala ere, Primaren banaezintasun printzipioari jarraiki, Aseguratuen bajek ez dute inolako ondoriorik izango jadanik sorturiko Primei dagokionez, nahiz eta Hartzailearen mesedetan Baldintza Partikularretan ordainketa zaituta egon.

- e) Ezbeharraren ondorioak gutxitzea, susperraldi azkarra izateko bere eskura dauden baliabideak erabilita. Aseguratzaileri kalte egin edo engainatzeko asmo argiarekin eginbehar hori ez betetzeak, Aseguratzailera ezbeharretik eratorritako betebehar guztietatik askatuko du.
- f) Subrogazioa Aseguratzailerean alde eman eta erraztu, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 82. artikulua ezartzen duenaren arabera. Ondorioz, Aseguratzailera, Kontratu honetatik sortzen zaizkion betebeharrak bete ondoren, ezbeharraren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideak eta ekintzak egikaritu ahal izango ditu ezbeharraren ardura duten pertsonen aurrean asistentziaren gastuak berreskuratzeko helburuaz.

Aseguratzailera ezingo ditu egikaritu Aseguratuaren kontra honek subrogatu dizkion eskubideak. Aseguratu izango da, bere ekintzeekin edo ez-egiteekin, Aseguratzaileri subrogatzeko eskubidean egin diezazkiokeen kalteen erantzule.

Aseguratzailera ez du izango subrogatzeko eskubiderik Legearen arabera Aseguratuaren erantzukizunari sorrera eman dioten ekintzak edo ez-egiteak burutu dituzten pertsonen kontra, ez eta Aseguratuarekin bizi eta berarekin hirugarren odolkidetasun maila zibilaren barruko senide, ildo zuzenean edo albokoan, guraso hartzaile edo seme-alaba adoptatua den ezbehar egilearen kontra ere. Arau honek, ordea, ez du eraginik izango erantzukizuna engainutik badator edo erantzukizuna Aseguru Kontratu baten bidez babesturik badago. Azken balizko egoera horretan subrogazioa bere hedaduran mugaturik egongo da aipatutako Kontratuaren terminoen arabera.

Aseguratzailera eta Aseguratu hirugarren erantzule baten kontra bat badatoz, berreskuratutako kobrantza bien artean banatuko da bakoitzaren interesen proportzioan.

- g) Kontratu indarrean dagoen bitartean, Aseguratuak edo Medikuek berak, preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez, eskatutako agiri eta informazio mediko guztia erraztu beharko dio Aseguratzaileri, eskatzen dituen prestazioen estalduraren kostua balioztatze aldera. **Aseguratzailera eskatu ondoren, estaldura emateko prozesua etena geratuko da informazio guztia jaso arte. Gerora, Aseguratuaren eskutik edo Medikuearen eskutik, preskripzio elektronikorako sistemaren bitartez, jasotako informazio medikoaren ondorioz, edozein prestazio desegokia dela agerian geratzen bada, Aseguratzailera Aseguratuari prestazio horren estalduraren kostua eskatu ahal izango dio.**
- h) Kontratu honetan sartutako medikuek eskainitako zerbitzuak erabili ahal izateko, Aseguratuak laguntza jasotzeko beharrezko baimena eskuratu beharko du eta aipatu zerbitzuren bat erabiltzerakoan baimen-agiria erakutsi edo eman beharko du. Zerbitzu horiek erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da aurrez Aseguratzailerean espezialista baten preskripzioa eta baimena jasotzea.
- i) Aseguratuaren Txartela, Aseguratzailereana dena eta Aseguratu bakoitzari ematen zaiona, erabilera pertsonaleko dokumentua da eta ezin da eskuz aldatu. Galtzen, lapurtzen edo hondatzen bada, Aseguratuaren Hartzaileak eta Aseguratuak ahalik eta arinen Aseguratzaileri jakinarazi behar diote.

Kasu hauetan, Aseguratzailera Polizan agertzen den Aseguratuaren etxera txartel berria bidaliko du, galdutakoa, lapurtutakoa edo hondatutakoa baliogabetuz.

Halaber, Aseguruaren Hartzaileak eta Aseguratuak Polizan baja izan den Aseguruaren txartela Aseguratzailerari bueltatzeko beharra izango dute.

Aseguratzailera ez da osasun txartelaren erabilera ez egokiaren edo iruzurrezkoaren erantzule egiten.

j) Aseguratuak bermaturiko prestaziorako eskubidea galduko du:

1. Osasunari buruzko Galdetegia betetzean informazioa gorde edo zehaztasunik eza bada, engainua edo erru larria egon bada.
2. Arriskua larriagotzeko kasuan, Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailerari horren berri eman ez badio asmo txarrez jokatu.
3. Bermaturiko gertakizuna Prima edo, kasua denean, bere zatia ordaindu aurretik gertatu bada.
4. Ezbeharra Aseguruaren asmo txarragatik gertatu denean.

k) Aseguruaren edozein dokumentu horretarako eskubiderik ez duen pertsonaren batek erabiltzeak, Aseguratzailerari erantzukizuna duen Aseguratuak Polizatik kanpo uzteko ahalmena emango dio, dagozkion ekintza zibilei edo kriminalei kalterik egin gabe.

l) Hartzailearen eta/edo Aseguruaren betebeharra izango da laguntza eskatzen deneko datan altan emanda dauden asistentzia hornitzaileen zerbitzuak erabiltzea. Helburu horretarako, Zerbitzuen Katalogoaren xehetasunak edota Koadro Mediko eguneratua kontsultatu ahal izango da Aseguratzaileraren bulegoetan, telefonoetan eta web gunean.

2. Aseguruaren Hartzaileak eta, kasua bada, Aseguratuak, hurrengo ahalmenak dituzte:

- a) Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak, Kontratua aribidean denean, arriskua murriztu eta beren izaeragatik Kontratua egiterako unean Aseguratzailera ezagutu izan balitu Kontratu hori baldintza hobegotan gauzatzeko aukera emango luketen egoera guztien berri eman ahal izango diote Aseguratzailerari. Kasu horretan, Primak estalitako aribidean den aldia bukatzean, hurrengo primaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztu beharko da; horrela egingo ez balitz, Hartzailearen eskubidea izango litzateke Kontratua bertan behera utzi eta jada ordaindutako primaren eta berez ordaindu beharko lukeenaren arteko aldea itzultzea, noiztik eta arriskua murriztu dela jakinarazi den unetik aurrera.
- b) Aseguruaren Hartzaileak Aseguratzailerari eskatu ahal dio, Poliza jaso eta hilabeteko (1) epean, honen eta Aseguru Proposamenaren edo adostutako klausulen artean dauden ezberdintasunak konpontzeko Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera; erreklamaziorik egin gabe epe hori igarota, Polizan agertzen denarekin ados egongo da.

12. artikulua
Aseguratzaileraren bestelako betebeharrak

- a) Kontratututako laguntza emateaz gain, Aseguratzailera Aseguruaren Hartzaileari emango dio Poliza edo, kasua bada, behin behineko estalduraren dokumentua edo Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokiona.

Era berean, Aseguratuaren Txartela emango dio Hartzaileari, dokumentu pertsonala eskuz aldatu ezin dena, Polizan sarturik dauden Aseguratu bakoitzari dagokiona.

- b) Poliza sinatzerako unean, Aseguratzailleak bizi den probintziari dagokion Koadro Medikoaren ale bat erraztuko dio. Aseguratzailleak fakultatiboen zerrenda urtero eguneratu ahal izango du, fakultatiboen, profesionalen, ospitale zentroyen eta zerrenda osatzen duten gainontzeko establezimenduen alta edo baje bidez.
- c) Aseguratzailleak Hartzaileari jakinarazi beharko dio, indarrean dagoen aldia bukatu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago, Aseguruaren Kontratuan egongo den edozein aldaketa.

13. artikulua Aseguruaren Iraupena

- a) Asegurua Baldintza Partikularretan aurreikusten den denboraldirako hitzartzen da, eta besterik ezarri ezean, kontratatu den urteko abenduaren 31n bukatzen den aldirako.

Epemuga bukatuta, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 22. artikuluekin bat etorritik, urteko epeetan luzatzen joango da isilbidez. Dena den, **bi aldeetako edozeinek uka dezake luzapena beste aldeari idatzizko jakinarazpena bidaliz, aribidean den Kontratuaren aldia amaitu baino hilabete (1) lehenago gutxienez, Hartzaileak luzapenik nahi ez duenean, eta gutxienez bi (2) hilabete lehenago Aseguratzailleak nahi ez duenean. Hartzailearen jakinarazpena Aseguratzailleari egin behar zaio. Jakinarazpena hemen ezarritako moduan egiten bada, kontratua Baldintza Partikularretan hitzartutako epean edota urteko luzapen aldia bukatutakoan agortuko da, kasuaren arabera.**

Aseguratu ospitaleratua balego, Aseguratzailleak Polizaren luzapenari uko eginez egindako jakinarazpenak ez du Aseguratu horrenganako eraginik izango, ospitalean alta jasotzen duen eguna arte, salbu eta Aseguratuak tratamendua jasotzeari uko egiten badio.

- b) Kontratututako estaldurek ez dute eraginik izango Primaren lehenengo ordainagiria ordaintzen ez den bitartean.

14. artikulua Eskubideak galtzea. Kontratuaren Desegitea eta Eztabaidaezintasuna

1. Aseguratuak bermatutako prestazioaren eskubidea galtzen du honako kasu hauetan:

- a) Asegurua Baldintza Partikularretan aurreikusten den denboraldirako hitzartzen da, eta besterik ezarri ezean, kontratatu den urteko abenduaren 31n bukatzen den aldirako.

Epemuga bukatuta, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 22. artikuluekin bat etorritik, urteko epeetan luzatzen joango da isilbidez. Dena den, bi aldeetako edozeinek uka dezake luzapena beste aldeari idatzizko jakinarazpena bidaliz, aribidean den Kontratuaren aldia amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez. Hartzailearen jakinarazpena Aseguratzailleari egin behar zaio. Jakinarazpena hemen ezarritako moduan egiten bada, kontratua Baldintza Partikularretan hitzartutako epean edota urteko luzapen aldia bukatutakoan agortuko da, kasuaren arabera.

- b) Arriskua larriagotzen bada eta Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailari jakinarazten ez badiote eta asmo txarrez jokatu badute (Kontratuari buruzko Legearen 12. artikulua).
- c) Arrisku bezala bermatzen den estalitako ezbeharraren lehenengo prima ordaindu aurretik gertatzen bada, kontrakoa itundu ez bada (Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 15. artikulua).
- d) Ezbeharraren Aseguratuaren asmo txarragatik gertatu denean (Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 19. artikulua).
- e) Asegurua eskatzean Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren jaiotza datari buruzko zehaztasunik gabeko adierazpena egiten bada, Aseguratzailari Kontratuari uko egiteko aukera izango du, betiere Kontratuaren indarrean sartzeko unean Aseguratuaren benetako adina Aseguratzailari ezarritako onarpen mugak gainditzen baditu.

Adinari dagokionean, zehaztasunez adierazten ez bada eta ondorioz ordaindutako prima ordaindu beharko lukeena baino txikiagoa balitz, Aseguratuak Aseguratzailari prima gisa ordaindutako zenbatekoa eta bere benetako adinagatik ordaindu beharko lukeenaren arteko diferentzia ordaindu beharko dio.

Aitzitik, ordaindutako prima beharko lukeena baino gehiago bada, Aseguratzailari jasotako primen gehiegizkoa bueltatu beharko du interesik gabe.

2. Aseguruaren Hartzaileak Kontratu desegin dezake honako kasu hauetan:

Koadro medikoa aldatzen denean, baldin eta Mediku Orokorrari edo Familiakoari, Tokologoari, Pediatrari edo Espezialista Koadroaren % 50ari eragiten badiot; erabakia Aseguratzailari jakinarazi beharko dio bide frogagarri baten bidez. Arau hau ez da aplikagarria izango kausa justifikatuaren ondorioz sorturiko ordezkapen iragankorrak direnean edo Teknika Kirurgiko Bereziatiko Medikuei, Odontologoei, Analistei eta Erradiologoei dagokienean.

Aldaketa horiek Kontratu desegiteko arrazoia suposatzen ezazketenean, Aseguratzailari Aseguruaren Hartzaileari horren berri eman behar izango dio derrigorrez gertatu eta hurrengo hogeita hamar (30) egun naturalen barruan. Hartzaileak jakinarazpenaren berri izan duenean zenbatzen hasi eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epean erabili ahal izango du desegiteko eskubidea.

Kontratu desegiteak ondorioa izango du Hartzaileak bide frogagarri baten bidez jakinarazpena ematen duen datako hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, eta Aseguratzailari kontsumitu gabeko Primaren zenbatekoa itzuli beharko dio.

3. Polizaren eztaba daezintasuna.

Azterketa medikoa eginda balego edo eskubide osoak onartuak baleude, Poliza eztaba daezina izango da Aseguratuaren osasun egoerari dagokionez eta Aseguratzailari ezingo dizkio ukatu bere prestazioak Kontratuaren burutze dataren aurreko gaixotasunak daudela alegatuta, beren beregi eta aipatu azterketaren ondorio gisa, Polizaren Baldintza Partikularretan salbuespena egiten denean edo eritasuna edo afekzioa Aseguratuak Osasun Galdetegi-Aitorpenean engainuz ezkatatu duenean izan ezik.

Azterketa medikoa egin izan ez balitz eta eskubide osoak ere onartu izan ez balira, Poliza eztaba daezina izango da Kontratuaren indarrean sartu zenetik urtebete igaro denean, Hartzaileak edo Aseguratuak engainuz jokatu duenean izan ezik.

15. artikulua

Datuak Babestea

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Aseguru-Kontratuaren 50/1980 Legearekin eta gainerako lege aplikagarriekin bat, honakoa jakinarazten dizugu:

- 1) **Tratamenduaren arduradunaren nortasuna eta harremanetarako datuak:** IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, IFK zk. A-95321386 (aurrerantzean, "IMQ"). IMQrekin harremanetan jar zaitezke aurrez aurre edo postaz Bilboko helbidean (Bizkaia), k/ Máximo Aguirre 18 (bis), (PK 48011), edo emailaz: imq@imq.es.
- 2) **IMQko Datuak Babesteko Ordezkararen (DBO) nortasuna eta harremanetarako datuak:** IMQko DBOrekin emailaz jar zaitezke harremanetan: dpd@imq.es
- 3) **IMQk erabiltzen dituen datu pertsonalak:** IMQrekiko kontratu-harremana kontrolatu eta kudeatzeko beharrezkoak direnak eta, bereziki, identifikazio-datuak (izena, abizenak, sexua, egoera zibila, lanbidea, jarduera sektorea, gaitasuna, eta NAN), harremanetarako datuak (posta helbidea eta posta elektronikoa edo telefono zenbakia), fakturazio-datuak, osasunari buruzko datuak, genetikoak edo biometrikoak.
- 4) **Datu pertsonalak zertarako erabiltzen diren:** IMQk datu pertsonalak erabiltzen ditu (i) legezko obligazioak betetzeko, (ii) IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta –zerbitzuen berri emateko, eta (iii) bezeroek edo asegurudunek eskatutako eta/edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko, baita ere, dagozkion zerbitzuak fakturatzeko beharrezko diren datuak erabili eta kudeatzeko.

Hain zuzen ere, Aseguru-poliza kontratatzeak eskatzen du IMQk garatu, bete, kontrolatu eta betearazteko Hartzailaeren datuak erabili behar dituela, baita Asegurudunen eta/edo onuradunen datuak ere, datu sentsibleak barne (hala nola, Asegurua kontratatzeako eskatutako osasunari buruzko datuak). Erabilera horren barruan dago zure datuak IMQren ardurapean dauden fitxategietan edo datu-basetan sartzea. Horretarako, IMQk zure datu pertsonalak erabili ahal izango ditu Aseguru Kontratua formalizatu baino lehen ere edo kontratua, arrazoia edozein dela ere, bukatu bada.

Mediku edo osasun prestazioak eskatu edo egitearekin eta/edo Poliza berritzearekin, Hartzaila (i) jakitun dago bere datuak eta berak adierazitako Asegurudunen eta/edo onuradunen datuak erabiliko direla, eta datu horiek nahiz kontratatutako Aseguru-poliza betearaztean sortutakoak partekatuko direla, hala badagokio, osasun-zerbitzuen emailleekin, hemen adierazitako baldintzei jarraituz kontratatu den Aseguru-polizarekin bat: eta (ii) adierazi eta bermatzen du Hartzailak IMQri jakinarazitako titular guztien datu pertsonalak (hau da, kontratatutako Aseguru-polizaren Asegurudunen eta/edo onuradunen datuak) erabiltzeko baimena duela, hemen adierazitako baldintzei jarraituz. Berariaz jakinarazi dizkie agiri honetan adierazitako datuak erabiltzeari buruzko edukia eta kontratatutako Aseguru-polizaren edukia, eta konpromisoa hartzen du IMQri helarazteko, azken horrek hala eskatuta, atal honetan aipatzen diren Asegurudunen eta onuradunen idatzizko baimena (ii).

Jakianazten dugu ez dela profil komertzialetan oinarritutako erabaki automatizaturik hartuko eta ez dela scoring edo tarifakazio jarduerarik egingo.

- 5) **Tratamenduaren oinarri juridikoa:**
 - (i) Datuak erabiltzeko oinarri legitimoa da aseguru-kontratua bete, betearazi eta kontrola egitea, baita IMQrekin eskatutako edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzea ere. Legeek ezarritako obligazioak ere bete behar ditu IMQk. Besteak beste: Aseguru

Kontratuaren 50/1980 Legea; Aseguru- eta Berraseguru-entitateen Ordenamendua, Gainbegiratzea eta Kaudimena arautzen dituzten 20/2015 Legea eta 1060/2015 Errege Dekretua; aseguruak banatzeari buruzko 2016/97 Zuzentaraua (EB); eta indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko araudia.

Legezko oinarri honek lehen aipatutako datuak erabiltzeari ere eragiten dio, honako hauetarako: ezbeharrak likidatzeko, arriskuen tarifikazioa eta hautespena ahalbidetuko dituen estatistika-lankidetzak aktuariala egiteko, teknika aseguratzaileko azterlanak egiteko, iruzurraren prebentzioa egiteko, segmentazioak egiteko, inkestak edo merkatu-azterketak edo bezeroak ez galtzeki eta/edo fidelizazio programak edo antzekoak egiteko (barne dago IMQk edo beste oinarriaren batek duten ahalmena inkestatik edo merkatu-azterketatik edo informazio- edo promozio-kanpainatik lortutako informazioa erabiltzeko).

Era berean, legezko oinarri honek datuak erabiltzeari eragiten die Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari egindako telefono bidezko harremanak grabatuz, zerbitzua kalitate hobearrekin ematen dela bermatzeko.

- (ii) Orobat, datuak erabiltzeko legezko oinarria da IMQren interes legitimoa IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta -zerbitzuen berri emateko (www.imq.es webgunean uneoro identifikatuta daudenak), edozein komunikabide erabiliz (adib., posta, telefonoa, faxa, komunikabide elektronikoak, etab.)

Edonola ere, kontuan hartu behar duzu beti erabil daitekeela jakinarazpen komertzialak jasotzearen aurkako eskubidea (aurrerago deskribatzen den bezala).

Era berean, legezko oinarri honek babesten du IMQk asegurdunen eskura jartzen duen mediku-taldeko kideek zure datuen erabilera aplikazio informatikoak erabiltzea, informazio-sistemarako homogeneousak direnak, eta horrela, erraztu eta hobetu egingo da interesatuaren datuen kudeaketa IMQk eskaintzen duen mediko-taldearen barruan.

Interes legitimoan oinarritutako edozein tratamendu egiteko, IMQk datu pertsonalak, ohorea eta intimitate pertsonala nahiz familiarena babesteko duzun eskubidea errespetatu du, eta errespetu hori bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

IMQn uste dugu, bezero zaren aldetik, arrazoizko aukera duzula guk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako produktu zein zerbitzuen berri izateko (betiere honako arlo hauei lotuta badaude: aseguruaren sektorea, osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa, lan arriskuen prebentzioa, osasuna eta ongizatea).

6) Zure datu pertsonalen hartzaileak:

IMQk, tratamenduaren arduraduna den aldetik, ez dizkio zure datu pertsonalak hirugarrenei lagako, ez badago legezko obligaziorik edo salbu eta lagapena beharrezkoa bada kontratu-harremana betearazteko.

Aurrekoaren kalterik gabe, kontratua eta lege aplikagarriak betez, IMQk kasuan kasu behar-beharrezko datuak lagako dizkie honako hauei: (i) kontratatutako Aseguru-polizarekin bat zerbitzuko ematen dituzten osasun arloko profesionalak; (ii) kontratatutako Aseguru-poliza zuzen bertuteko IMQrekin koaseguru, berraseguru edo lankidetzak harremanak dituzten entitateak; (iii) agintariak; (iv) banku edo finantza-entitateak; (v) epaile edo auzitegiei; eta (vi) tratamenduaren arduradunak.

Halaber, zerbitzua behar bezala emateko, eta kontratuaren ondoriozko harremana kudeatzeko, gerta liteke tratamenduaren arduradunak eta/edo profesional espezializatuek datu pertsonalak erabili behar izatea.

Arduradun horietako batzuk, "hodei-informatika" zerbitzuen emailak barne, Europar Batasunetik kanpo egon daitezke edo Europar Batasunetik kanpoko balibideak izan ditzakete; beraz, babes-maila baliokidea ez duten lurraldeetan. Horrelako kasuetan, IMQk bermatzen du EU-US Privacy Shield akordioak edo antzeko berme batek babesten dituela hornitzaileak, lege aplikagarriekin bat.

- 7) **Hirugarrenengandik jasotako datuak:** Polizarekin bat gerta liteke IMQk erabili behar izatea hirugarrenek jasotako bezeroaren edo asegurudunaren datuak, osasunari buruzkoak, genetikoak edo biometrikoak barne, osasun zerbitzuen emaileek jasoak kontratatutako Aseguru-polizarekin bat.

Horrelakoetan, IMQk beharrezko informazioa besterik ez die eskatuko osasun-zerbitzuen emaileei, hain zuzen ere, legezko obligazioak eta kontratatutako Aseguru-polizan ezarritakoa betetzeko behar den informazioa, eta datuen proportzionaltasun eta minimizazio printzipioak errespetatuko ditu.

- 8) **Datu pertsonalak gordetzeko epea:**

Kontratu-harremanak dirauen bitartean gordeko ditu IMQk zure datu pertsonalak. Osatu gabe dauden aseguru- eskabideak, gehienez, 6 hilabetez gordeko ditu IMQk, salbu eta eskabidean epe luzeagoa adosten bada, eskabide berriak direla-eta, izapidetzeak birritan ez egiteko.

Behin kontratu-harremana bukatuta, IMQn zure datuak gordeko ditugu legeak ezarritako atxikitze epeetan edo IMQk erantzukizunak dituen epealdian, 10 urte, gehienetan. Epe horiek igarota, zure datuak suntsitu egingo dira, salbu eta datuok zeharo anonimizatu badira, araudiaren bat, estatistika- edo ikerketa-helburuekin.

- 9) **Interesatuaren eskubideak:**

Interesatua bere datu pertsonalak erabili, zuzendu, ezabatu, mugatu eta aurkartzeko eskubideen titularra da, baita horien eramangarritasunerako eskubidearena ere. Halaber, emandako baimena uneoro ken dezake interesatuak, eta horrek ez dio tratamenduaren zilegitasunari kalte egingo.

Tratamenduaren arduraduna den IMQk erabiltzen dituen datu pertsonal horiekiko eskubidea erabiltzeko, datuen titularrak honako kanal hauek erabil ditzake: (i) aurrez aurre IMQren edozein bulegotan; (ii) postaz k/ Máximo Aguirre, 18 bis, 48011 Bilbo, Bizkaia (bezeroarentzako arreta sailera zuzenduta); edo (iii) posta elektronikoz: imq@imq.es (atxiki behar duzu beti zure NANren kopia irakurgarria edo zure nortasuna ofizialki egiaztatzen duen beste agiri bat). Eskubideok erabiltzea doakoa da.

Tratamenduaren kontra eta agiri honetan adierazitako datuak lagatzearen kontra egonez gero, gauzatu gabe gera liteke Asegurudunen estaldura kontraktotasun horrek dirauen bitartean. Izan ere, kontra egoteak eragotzi diezaiokie IMQri prestazioak kalkulatzeko eta Aseguru-Kontratuan ezarritako helburuak betetzeko eta araudi aplikagarriaren obligazioak betetzeko behar diren datuak izatea.

Era berean, uste baduzu IMQk ez dituela zure datu pertsonalak erabili araudi aplikagarriarekin bat, harremanetan jar zaitezke Datuak Babesteko ordezkariaren: dpd@imq.es edo erreklamazioa egin Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

16. artikulua

Erreklamazio-eskariak eta kontrola. Bezeroarentzako Arreta Saila

1. Aseguratzailereen jardueraren kontrola Estatu espainolari dagokio eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatu entitatearen kontrola egiteaz.

2. Hartzailleak, Aseguratuak, Onuradunak, Hirugarren Kaltetuak edo horietako edozeinen eskubidedunek Aseguru Kontratuari buruzko edozein erreklamazio egin nahi badute, berau konpontzeko zuzendu beharko dira:

a) Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros-en Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura, hauetako bide bat erabiliz:

1. Pertsonalki IMQren edozein bulegotan.
2. IMQren gizarte helbidera bidalitako postaren bidez: Máximo Aguirre, 18-bis, Bilbo (Bizkaia), edo Gasteiz hiribidea, 39, 01008 Vitoria-Gasteiz (Araba), edo Euskadi Plaza, 1, 20002 Donostia (Gipuzkoa).
3. Faxez 94 427 39 37 (Bizkaia), 945 14 47 65 (Araba) eta 943 32 78 93 (Gipuzkoa) zenbakietara.
4. Posta elektronikoaren bidez imq@imq.es helbidera (Bizkaia), vitoriagasteiz@imq.es (Araba), edo donostia@imq.es (Gipuzkoa).

Baliabide informatiko, elektroniko edo telematikoen bidez egindako aurkezpena baliozkoa izango da betiere bere irakurmena, inprimatzea eta mantentzea baimentzen badu eta Araudian ezarritako baldintzak eta ezaugarriak betetzen baditu.

Aipatutako Sailak idatziz emango du aurkezten diren erreklamazioak jaso izanaren berri, eta arrazoizko idazkiaren bidez ebatziko ditu indarreko araudiarekin bat, aurkezten direnetik hasi eta hilabete bateko (1) epean.

Sailak, pertsona fisiko edo juridiko guztiek zuzenean edo izendatutako ordezkari bidez egindako keak eta erreklamazioak konponduko ditu, aipatutako kexa eta erreklamazioak bere aseguru jarduerekin zerikusia duten legez aitortutako interes eta eskubideei badagozkio, prozedura edozein dela eta, hala nola Kontratuak, gardentasuna eta bezeroaren babesaren araudia edo praktika eta erabilera ona, ekitate-printzipioa bereziki.

Ebazpenetan Kontratuen Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezietan ezarritako betebeharrak eta eskubideak hartuko dira kontuan; jarduera aseguratzaileraren legezko araudia (Aseguru Kontratuari buruzko Legea, Aseguru Pribatuaren Ordenazioa eta Ikuskapen Legea eta Araudiaren Testu Moldatua eta aplikagarria den gainontzeko araudia).

b) Erreklamazioaren prozedura administratiboa Aseguru eta Pentsio-Fondoaren Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean ere hasi daiteke, paperezko euskarrian edo bide telematikoz <https://www.dgsfp.mineco.es/reclamaciones> webgunearan bitartez. Horretarako, erreklamazioa egiten duenak frogatu beharko du erreklamazioa Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan egin zenetik hilabete bat (1) (erreklamaziogilea kontsumitzailea baldin bada) edo hilabete bi (2) (gainerako egoeretan) igaro direla eta ez dela erabakirik hartu, edo bere onarpena ukatua izan dela, edo eskaria ez dela aintzat hartu.

c) Aurreko jarduerak baztertu gabe, edonola ere, erreklamazioa egiten duenak Epaitegi eta Epaimahai eskudunetara jo dezake (Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izanik).

d) Halaber, aldeek euren desadostasunak bitartekarien erabakipean jar ditzakete borondatez, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege

Dekretuan eta bere garapen arauetan ezarritako terminoetan. Edozein kasutan, aldeak tartekaritza sistemaren pean jartze hori borondatezkoa izango da eta idatziz beren beregi jarri behar da. Aurreikuspen horrek ez du, inolaz ere, bitartekarien menpean aldez aurretik jartzen denik esan nahi.

- e) Halaber, eta goiko atalean jarritakoari kalterik egin gabe, sortu diren edo sor daitezkeen zuzenbidearen arabera jarrera librekoak diren gai eztabaidagarriak ere jarri ahal izango dira tartekaritzaren menpean, Tartekaritzari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean ezarritako terminoetan.
- f) Era berean, desadostasunak bitartekari baten esku ipini ahal izango dituzte, auzi zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

17. artikulua Eskumena

Kontratu hau Espainiako eskumenaren menpe geratzen da, Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izango delarik.

18. artikulua Preskripzioa

Kontratu honetatik eratoritzen diren ekintzek **bost (5) urte** igaro ondoren preskribituko dute, egin zireneko datan zenbatzen hasita.

19. artikulua Jakinarazpenak

Aseguruaren Hartzailleak edo Asegurudunak Aseguratzailleari egindako jakinarazpenak Polizan agertzen den egoitza sozialera egingo dira.

Aseguruaren Hartzailleak Kontratuan bitarteko den Agente edo Aseguru-artekari bati egindako jakinarazpenek, Aseguratzailleari zuzenean egindakoen ondorio berberak izango dituzte.

Aseguratzailleak Aseguru Hartzailleari edo Asegurudunari egin beharreko jakinarazpenak posta bidez, Polizan jasotako helbidera, edo hala eskatuz gero, elektronikoki edo telematikoki bidaliko dira, edo eskuragarri jarriko dira.

Hala ere, Aseguratzailleak Hartzaillearen edo Asegurudunaren helbidera bidali ahal izango ditu jakinarazpenak, horrela egitea justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

20. artikulua

Urruneko kontratazioa

Urruneko kontratazioa egon dela ulertzen da urruneko komunikazio teknikaren bat erabili denean eskusiboki aseguruia negoziatzeko eta sinatzeko, aseguratzailea (edo banatzailea) eta hartzailea batera egon gabe fisikoki. Komunikazio horretarako bitarteko telematikoak (posta elektronikoa, weba eta abar), elektronikoak, telefonikoak, faxa edo antzeko beste batzuk (esaterako: posta arrunta) erabil daitezke.

Aseguruia urrutiko teknika baten bidez kontratatu bada, eta aseguruaren hartzailea merkataritza edo lan jarduerarekin lotutako asmorik gabeko pertsona fisikoa bada, hartzaileak arrazoirik azaldu gabe eta zigorrik jaso gabe deuseztatu ahal izango du kontratua, aseguruaren kontratua egin eta hamalau (14) eguneko epean, estali beharreko ezbeharrik gertatu ez bada.

Hartzaileak aldebakarreko ahalmen hori erabil dezake Aseguratzaileari idatzia bidalita Máximo Aguirre kalea, 18 bis, 48011 (Bizkaia) helbidera, edo posta elektronikoz imq@imq.es helbidera.

Kontratuan atzera egiteko eskubidea erabiltzen duen aseguruaren hartzaileak aseguruaren kontratua indarrean egon den epeari dagokion polizaren zati proportzionala ordaindu beharko du. Prima ordainduta egonez gero, Aseguratzaileak prima itzuliko dio hartzaileari hogeita hamar (30) egun naturaleko epean gehienez ere, kontratua indarrean egon den epeari dagokion zenbatekoa kenduta.



Bezeroen Arreta 900 81 81 50

ARABA

Vitoria-Gasteiz
Avda. Gasteiz, 39

BIZKAIA

Bilbo
Bulego Nagusia
Máximo Aguirre, 18 bis
Clínica IMQ Zorrotzaurre
Ballets Olaeta, 4
Clínica IMQ Virgen Blanca
Maestro Mendiri, 2

Durango

Ibaizabal, 1 B - bajo

Gernika

Abaunza, 2 - bajo

Getxo

Gobela, 1

GIPUZKOA

Donostia
Plaza Euskadi, 1